

...eta

KittO!

928 zkio.
2015-IV-30



***Betiko ura...
kartel bi lagun dituela***



Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34
F. Calbetón, 4 - 3. solairua jorgevega.eibar@gmail.com



**Batxilergorako Eskaintza (A eta D)
2015-2016**

**Zientziak eta Teknologia
Giza eta Gizarte Zientziak**



943 12 16 98
azitain@lasalle.es

Web: www.lasalleeibar.com
Twitter: @LaSalleEibar

ASTEAN ESANAK

ALMERIAN GERTATUTAKOAREN HARIRA

Aurreko domekako Almeria-Eibar partidu amaierako gertakariak izan du oihartzunik komunikabideetan. Hoiien jokabide batzuk eta Garitanok berak Azpeitian martxoaren 22an Aho *bizarrik gabe* saioan esandakoak ekartzen ditugu lerrootara. Asek eta La Vanguardiak "talde donostiarraren entrenatzaile" bataiatu zuten Garitano, eta Marca-k editoriala ere egin zuen horren gainean:

"Garitanori sentsibilitate eta zentzu apur bat falta izan zitzaion egoera berehala konpontzeko. Galdetu ziotenari buruzko azalpena gazteleraz ematearekin nahikoa izango zen; euskera, katalana ez bezala, zailtasun handiko hezkuntza delako"

(MARCA EGUNKARIA)

"Euskal Herriko prentsaurrekoetan euskaraz soilik hitz egin nahi nuke. David Moyes Realeko eskoziar entrenatzaileari itzultzailea jarri diote, Ernesto Valverde Athletic-eko teknikaria gazteleraz aritzen da eta, aldiz, nik ezin dut euskaraz bakarrik egin Euskal Herrian egiten ditudan agerraldietan. Desgrazia dut erdaraz dakidala eta, beraz, egin egin behar. Horrek euskaldun gisa dauzkadan eskubideak urratu egiten ditu"

"Euskal selekzioari buruz ere ezkorra naiz, jokalaria gisa barrutik bizi izan dudalako hori guztia. Jokalarien aldetik beti ikusi izan dut, orokorrean, konpromiso falta handia. Eta federazio aldetik, trabak daude. Denon aldetik dago zerbait egiteko: euskaldunen artean iraultza txiki bat beharko litzateke"

(GAIZKA GARITANO,
EIBAR FI-KO ENTRENATZAILEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KOIZEPTO.- Likina, gaztelerazko 'pringoso'. "Karameluak oso koipeztuak izaten dira ahotik atarata hatzamarretan ibilli ezker".

KOIT(T)AU.- Gajoa, errukarria. Emakume eta umeei buruz esaten da, gizonezkoei, berriz, gizajua. "Andra koitauak ez zekixan zer egin".

eskutitzak

ALMERIA-EIBAR PARTIDUAREN ONDORENGO PRENTSAURREKOA

Euskal Kazetarien Elkarteak (EKE) eta Kazetarien Euskal Elkargoak (KEE) beren laguntasuna erakutsi nahi diete Gaizka Garitano Eibar SD taldeko entrenatzaileari, Joseba Urkiola kazetariari eta Juanjo Moreno Almeriako futbol taldeko prentsa arduradunari. Era berean, igandean, apirilaren 26an, izandako Almeria-Eibar partiduaren ondorengo prentsaurrekoan gertatutakoa salatu nahi dugu EKEk eta KEEK. Ez dugu ulertzen aipatutako prentsaurrekoan Gaizka Garitano EITBko euskal katean lan egiten duen kazetariari, Joseba Urkiolari, euskeraz erantzuten zion bitartean hainbat kazetarik erakutsi zuten errespetu falta. Izan ere, gaineratu behar da Garitanok ez zuela adierazi inoiz gaztelaniaz erantzun egin ez zuenik.

EKEk eta KEEK gure laguntza eskaini nahi diogu Joseba Urkiolari. Egin zuen bakarra, bere lana egitea izan zen. Eskubide bat da nahi duten hizkuntzan komunikatu ahal izatea.

Eskerrak eta gure babesa ere eskaini nahi dizkiogu Juanjo Morenori, zein errespetua eskatu eta ordena jarri besterik ez zuen nahi. Morenoren jokera horrek bai taldeko jarraitzaile zein inguruko kazetari batzuek horren kargugabetzea eskatzea suposatzen du. EKE eta KEE hori gertatzeari kontra daude erabat. Amaitzeko, igandean eman ziren moduko jarrerak salatu nahi ditugu. Onartezinak dira eta gure sektoreari kalte besterik ez diote egiten.

**EUSKAL KAZETARIEN ELKARTEAK
ETA KAZETARIEN EUSKAL ELKARGOAK**



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /
publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Sheila Lopez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik)



EIBARKO
UDALA



Gipuzkoa
BERRIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Santa Kurutzeko jaixak

Aurreko asteburuko bertso-afarixarekin motorrak berotu eta gero, asteburuan Santa Kurutzeko jaixak bete-betian ospatuko ditue. Zapatuan programia goizetik hasiko da, 10.30xetako kanpai hotsaren erritmora. 11.00etan Gorosta eta Mandiola auzuetako hildakuen aldeko mezia egingo da Santa Kurutzeko ermittan



eta, ondoren, hamaiketakua hartuko dabe. Eguardixan Oier Balzola eta Unai Andonegi trikitilarixen saiua hasiko da eta ordu erdi geruago umiendako jolasen txandia izango. Auzoko gaztiak 13.00ian ekingo detse herri jolaseri eta bazkarixa 14.30xetan Ixua jatetxian izango da. Bazkalostia trikitilarixak girotuko dabe.

Eta domekan, Santa Kurutz egu-

nian, atzera be kanpai eta meziarekin hasiko dabe eguna. Ondoren, Mugi Panderoa erromerixa taldiak girotutako piskolabisa, Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren saiua, Kezka dantza taldiak eta Usartza txistulari taldiak eskinduko daben soka-dantzia, umiendako jolasak eta txapel jaurtiketia eukiko ditue, jaixak hurrengo urtera arte agurtu baiño lehen.

“Eibarren siñesten dogu” kanpaiñako sarixak

Sabadell/Guipeuzcoano-ren “Eibarren siñesten dogu” merkataritzari laguntzeko kanpaiñaren barruan, bezeruendako 1.000 euroko sarixa Ane Mendiari egokitu jako. Herrixan kanpaiñarekin bat egin daben 200 merkatarixeri euren laguntasuna eskertzeko, bankuak beste 1.000 euroko sarixa banatu dau eta premixo hori Giltzak dendako Maria Errastik jaso eban martitzen goizian, sarixa banatzeko udaletxian egindako ekitaldixan. Irabazliak Mikel Urkola bankuko zuzendarixaren eta Mª Jose Telleria ziñegotzixaren eskutik jaso eben sarixa.



Nepalera laguntza bidaltzeko kanpaina

Aurreko asteburuan Nepal astindu eban lurrikarak kaltetu dittueneri laguntzeko, Udalak Eibar-Ermua Gurutze Gorrixaren bittartez bideratuko dan 3.000 euroko diru-laguntza emotia onartu dau. Egoeria benetan larrixa da eta Gurutze Gorrikuak dirua batzeko hainbat bide zabaldu ditue: bestiak beste, banku nagusixetan kontu korrentiak zabaldu ditue (informaziño gehixago 902 22 22 92 telefonuan eta www.cruzroja.es helbidian). Eibarren 70 bat nepaldar dagoz eta une latzak bizitzen dihardue, famelix eta lagunekin kontaktau ezinda zelan daguzen jakittekto modurik ez dakelako. Aste honetan Untzagan dirua batzen ibilli dira. Horrekin batera, Fernando Retolaza Deporrekto argazkilarixak Nepal-en egindako erretratuak emon detsez, hórrek salduta lortzen daben dirua kaltetueri laguntzeko erabilli deixen. Bestalde, lurrikara gertatu zanian gitxienez EAEko 26 herrittar, tartian lau eibartar eguazen, baiña danak onik dagoz.

Guraso berbalagunekin egindako loreontzixak.



Berbalagunak Gernikan

Aurreko zapatuan, eguraldixa lagun, Eibarko 20 berbalagun alkartu ziran Gernikan egun-pasa egittekto. Bake Museua, Juntetxia eta Gernikako arbola bisitau eta gero, ederto bazkaldu zuten denek elkarrekin. Barixakuan, bestalde, guraso berbalagunen txanda izan zen. Seme-alabekin batera haziak erein eta loreontzi politak egin zituzten.

Maiatzaren 1-erako ekitaldixak



Barixakuan, Maiatzaren Lehenian, LAB sindikatuak deittuta, 12.00xetan eskualde maillako manifestaziñua abiatuko da Untzagatik. Herriko kaliak ziherkatu eta gero, Untzagara bueltan ekitaldi politikua hasiko da eta 15.00etan, barriz, herri bazkarixari ekingo detse.



San Andresekuak edarto bazkarixan

Primeran ibilli ziran aurreko zapatuan 50. urteurrenaren harira antolatutako bazkarixan alartu ziran San Andres eskolako ikasle-ohiak. Aurretik Topalekuan ikusgai eguan argazki zaharren erakusketia bisitatzeko tartia hartu eben eta, eskola pareko lorategixetan erretratua etara eta jarraixan, eskolan bertan bapo bazkaldu eben.

HERRITTARREKIN BILLERIA

Diputaziñuak 20 millioi euro bideratuko ditu lurraldeko eskualdian herrittarrak gauzatu nahi dituen proiektuetara. Debarrenak bi millioi euro izango ditu datozen lau urtietan inbertitzeko. Eibarren maiatzaren 5ian egingo dabe herrittarren ekarpenak jasotzeko taillarra, Portalean, 19.00etan.

AFARIKETAN ETA JOLASETAN

Oporrak Afariketan (LH-ko 1. maillatik 6. mailla artekuendako) eta Udan Jolasetan (2009xan jaixotakuendako) programetan izena emoteko epia maiatzaren 4tik 8ra bittartekua izango da: Indianokua gaztelekuan eta interneten, www.astixa.eus helbidian egingo da horretarako aukeria.

IES UNIBHI

EIBAR-ERMUA

AUKERA ZABALENA!

HEZIKETA ESKAINTZA: A ETA D EREDUAK

BATXILERGOAK

Zientziak eta Teknologia
Humanitateak eta gizarte zientziak
Aukerako irakasgaien eskaintza zabalena

PROIEKTUAK ETA JARDUERAK

Nazioarteko ikasle-trukeak
UNI Encounter
Hizkuntzaren normalkuntza
Osasunarentzako programa
Urrats Bat
Agenda 21
Informatika ingelesez

TEL: 943 20 84 44
www.iesunibhi.com
uni@iesunibhi.com



twitter @UniEibarErmua



www.facebook.com/iesunibhi

**AURREMATRIKULA:
MAIATZAREN 4-TIK 14-RA**



Legarren larri eurixarekin

Domeka arratsaldeko eurixak hainbat arazo sortu zittuan, larrixena Legarre kalia, konpondu barri daben eta hurrengo egunian asfaltatzen hastekua zan zatixan urak gaiñezka egin eban eta. Suhiltzaillik birritan biharrian ibilli ziran ur-putzuan pillatutako ura etaratzen. Halanda be, barruraino sartutako urak etxe eta lokal batzuetan kaltiak eragin zittuan Legarren eta Bidebarrieta eta Errebalen.

Euskeriaren argi-illunak

Gaur 19.00etan, ...eta kitto! Euskara Elkartearen Illunabarrian programaren barruan, "Euskara, ospela eta egutera" dokumentalaren emanaldixa eta Dabid Anaut-en "Euskararen kate hautsiak" liburuaren egilliarren mintzaldixa egingo dira ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuartian). Euskal Memoria Fundaziñuaren lanak euskeriaren kontrako zapalkuntzaren kontakizuna ekarri desku: "Euskaldun izatiagaittik jazarpena bizi izan dabenen testigantzak ahotsa jartzen detse errealitate gordin baiña oindiok ezezagun horrerri.

Euskal Memoria Fundazioa



Dana dala, Euskal Herrixak egoeriarri zelako erantzuna emon detsan be jaso dogu, euskeriaren aldeko mugimendu zabalaren jatorri eta billakaeriarekin batera".



Joste egun edarra

Zapatuan giro edarrarian ospatu zan Gure Esku Dagok antolatutako Joste Eguna gurian: goizian eta arratsaldian jendiak idatzi eta margotutako oihalak josten jardun eben eta, eguna agurtzeko, arratsaldian Oihaljira koloretsu eta alaixak ziherkatu zittuan kalia.

...eta kitto!-ko materixala salgai

Datorren barixakuan, maiatzaren 8xan, ...eta kitto!-ko produktuak saltzen egongo gara, arratsaldeko 18.00etatik 20.00etara, Untzagako "piruli" kioskuaren aldamean. Haur eta helduendako kamisetak eta sudaderak izango dittugu salgai. Kamisetak 12 euro balixo dabe eta sudaderak 25. Bazkidiak 2 euroko deskontua eukiko dabe bi produktuetako edozein erosterakuan.

Funeraria·Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p> <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p> <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p> <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p>	

J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN EIKARTEA ...ETA KITTO! EUSKARA EIKARTEA

MAIATZAREN 10A SENPERE

HERRI URRATS 2015

autobus zerbitzua

Goizeko **08.30**etan IRTENDA Arratsaldeko **19.00**etan BUELTATZEKO

12€



Peruko CIPCA, "Centro para la Investigación y Promoción del Campesinado"ko Rosa Prieto Guzman-ek "Herritarren partaidetza" hitzaldia eskaini zuen Eibarren joan den eguaztenean. Ekitaldia Egoaizia eta Alboan-ek antolatu zuten; izan ere, Gobernu Kanpoko Erakunde horiek 12 urte daramatzate CIPCArekin elkarlanean, Peruko nekazarien alde.

ROSA PRIETO GUZMAN (CIPCA): "Herritarren alde egin dezaketeena planifikatzen laguntzen diegu agintariei"

CIPCA Peruko Iparraldean lan egiten duen Gobernu Kanpoko Erakunde da. Bere egoitza Piuran dago eta jesuitek bultzatutako obra soziala da. Peruko iparraldean 8 probintzia eta 65 distrito daude. Guztira, 1.600.000 biztanle. Biztanlegoaren %30 nekazaritzatik bizi da. Garatzeko zailtasun handienak dituzten 8 distritotan lan egiten dute CIPCA-ko teknikariek (Morropón eta Huancabamba-n batik bat).

"Produktoreekin lan egiten dugu, laborearen bat daukaten nekazariarekin. Laguntza tekniko, aholkularitza eta euren laboreak komertzializatzeko behar duten laguntza eskaintzen diegu", azaldu digu CIPCA-ko gobernagarritasun-esparruko zuzendaria den Rosa Prietok. Ekoizle hauen konpetibitatea eta jasangarritasuna bultzatzeaz gain, elkartu eta euren artean erlazioan egiten dituzte, merkatuan pisu handiagoa izan dazaten.

Guzti honetaz gain, CIPCAk herritarren partaidetzaren aldeko lana egiten du komunitate desberdinetan. Gizartean (Estata, merkatua, tokian tokiko demokrazia...) aldaketak eragiten ditu, euren funtzionamenduan "marginatuta" dauden biztan-

leak integratu ditzaten. "Formakuntza zerbitzuak, ikerkuntza eta informazioa eskaintzen diegu oinarriko taldeetako ordezkari, gazteei, emakumei, ekoizle txikiei, tokian tokiko agintari eta funtzionarioi...".

Arlo publikoan parte-hartzeko zailtasun ugari izaten dira, eta CIPCAren helburua herritarren parte-hartzeko gaitasuna indartzea da. "Taldeak indartu egiten ditugu, modu aktiboan bere interesen alde ekin dezaten eta arlo publikoari dagokien erabakietan zeresana izan dezaten", esan digu Rosak. Gainera, tokian tokiko erakundeekin lan egiten dute. "Agintari publikoek mesfidantzaz jokatzeko dute, boterea galtzeko beldurra izaten dute, horregatik garrantzitsua da eurekin lan egitea. Desberdintasunak oso handiak dira zona horretan, batez ere nekazaritza-esparruan. Kontuan izan behar da haurren artean desnutrizioa-maila oso handia dela, % 40ekoa, hain zuzen ere. Gainera, haur horiek hezkuntzarako sarbiderik ez dute, eta ura edo saneamendua bezalako oinarri-oinarriko zerbitzurik ez dute. Egoera horrek ematen dio zentzua gure lanari. Gure jardueraren bi-

tartez, herritarren bizi-kalitatea hobetu nahi dugu, eta, horretarako, gure laguntza eskaintzen diegu agintariei, euren komunitatean garapenerako lana ondo egiten dezaten. Lehentasunak ezartzen laguntzen diegu, eta herritarren alde egin dezaketeena planifikatzen laguntzen diegu. Esate baterako, agintariak lehen burdina eta porlanari ematen zioten garrantzi handia (antzzerkiak, kirol-guneak... eraikitzeari), beste behar garrantzitsuagoak zeudenean: hezkuntza, oinarriko zerbitzuak, haurren arreta... Agintariak ez dute arazoa bere osotasunean ikusten, eta gure lana da nekazarien aldeko politikak bultzatzen laguntzea eta gauzak ondo egiten direla egiaztatzea". CIPCAk egiten duen lana beste GKE eta erakunderentzako eredu edo erreferentzia izaten dira.

CIPCAk Eibarko Udalaren diru-laguntza jasotzen du orain dela 13 urte. Rosa Prietok biziki eskertzen du eibartar guztien laguntza. "Finantziabide desberdinen bila ibiltzen gara. Eibarko Udalak urteak daramatza gure proiektuak babesten, eta honek segurtasuna ematen digu gauzak egiten jarraitzeko".



Rosa Gil Tesouro

I. URTEURRENA (2014-IV-24)

"GURE BIHOTZETAN ZAUDE"

Felipe, Mikel, Pablo, Jon, Zaloa, Anneke, Angustias, nebak eta koinatak



Badira egun batzuk Urkizuko iturririxan udalak ura edateko ona ez dala diñuan kartela ipiñi dabela. Agindu/eskaeria azken analitika egin eta gero etorri da. Aurretik ura tratatu bakua zala ziñuan kartela eguan eta, berez, urak ez dau kanbixorik euki, baiña Osasun saillak aldioro egitten dittuan ohiko analisisetan topau dittuen porzentajiak ikusitta, udalari bigarren kartel hori ipintzeko esan detsa. Beraz, iturririxak betiko ura emoten segitzen dau.

Jendia beste herrixetatik be etortzen da ur billa: "Ur jarixua beste toki batzuetan baiño haundixagua dalako eta botilla, bidoi, marmita edo dana diralakuak bizkorrago betetzen diralako".

Gaiñera uraren kalidadia asko estimatzen dabe. Astelehenian Zerbitzu saillera deittu eban Zarauzko andra batek esan eban "Españiako urik onena zala" eta handik ur billa etortzen dala. Gaur gurekin berbetan egon diranak bi hillebete daroiez Ermutik hona etortzen, autua parian aparkatu eta ura hartzen, "Ermuan eurixa egitten dabenian segiduan ura mugiduta eta zikiña urtetzen dalako".

Euretako batek Urkizuko ura Alzolakuaren pare ipiñi dau. Durangotik be baten bat etortzen dala badakixe. Ermukoak esaten dabenez, txirindularixak be sarrittan geratzen dira hamen edatera. Eta Urkizun ez eze, Ubitxa, Errekaxu eta beste batzuetan be jende asko ibiltzen da. Izan da gurera deittu eta Udala ea zertan dabillen esan deskuna, etxeuak "Ardantzakua be lasai-lasai edaten dabela eta seme-alabak bikain hazi jakozela" esateko.



Betiko ura: kartel baten faltan, bi

Esanak esan, kontrola biharrezkua da herritarren kontsumuari begira, eta hor administraziñuak neurrixak hartu bihar izaten dittu. Ipuruako Osasun Publikoko zentrora jo dogu eta Jon Lamariano Sanidadedo sailleko Deba baillararako koordinatzailliak hainbat puntu argittu desku. "Ur tratatu bariko lehenagoko kartela jarri ebenian be edateko ur txarra zala ipiñi bihar zeben. Halako gauzak, dana dala, oso gatzak dira tratatzeko eta herrittareri informaziño zuzena emotia erakundieri kostatzen jakue, txarto ulertziak eta alarmia piztu leikezelako". Lamarianok diñuan ez, "jendiak jakin bihar dau halako iturririxak, kontsumorako ur sarian daguzen beste batzuen kontra, edozein aldaketa izateko arriskua dakela eta horrek kaltia eragin leikiela: lehorte bat dala, ganadu gehixago daguala inguruetan... uraren ibilbidiaren puntu baten kutsatzeko arriskua egon daiteke, nonbaitetik

apurtu leike prozesu normala". Urtero bi analitika egitten dira eta "2013tik hona, Urkizukuak seitik bittan emon dau toleratzen dana baiño presentzia mikrobiologiko altuagua. Errekaxukuak, esaterako, azkeneko bostetan". Edateko ur txarra dala diñuan kartela "azken sei analitikatik bittan balore altuaguak emoten badittu edo, zuzenian, baten kutsadura larrixa bada" ipiñi bihar da.

Aste honetan bertan billeria egingo dabe Gipuzkuako Ur Kontsorziokuak halako gaixak zelan tratatu erabagitzeko asmoz. Sanidadedo arduradunak ez daka argi nondik nora joko daben: "Zalantza asko sortzen dira tratatu bariko uretako iturririxen inguruan eta ez dago argi herrittareri zelan informatu bihar jakon. Gaiñera, territorixo bakotxak bere erara funtzionatzen dau. Prozedimentua behintzat errebisatzeko asmua dago eta bada zeozter; jakittek dago zeozter aldatuko dan, billeria ez da erraza izan-

CENTRO OM ZENTROA

Zezenbide, 1 - behea ezk. - EIBAR -



**REIKI
SHIKI RYOHO**

Felipe Arnaz Escudero

REIKI 1. MAILA:

OSABIDE NATURALEKO USUI SISTEMA

Maiatzaren 9an eta 10ean (15.30etatik 20.00etara)

Kontakturako: 627 916 746 / 943 208 324 (plaza mugatuak)



- Reiki Maisua eta terapeuta: 2.975 Kolegiatua
- Kolegiatua Fenaco 2.999-an
- Fisioterapia Laguntzailea
- Reflexologia
- Teknikoa Kiromasaje eta Osteopatian (5.644 Kol.)
- Radioestesia Terapeutikoa (Emozioren askapena)
- Hastapena Reikira: I, II eta III Mailak eta Magisteritza

go". Sasoi batian Sanidadia arduratzen bazan uraren kalidadiaz, "gaur egun uraren kontrolaren erantzunkizuna jabiena da, hau da, kasu honetan Udalarena. Gipuzkuako Ur Kontsorziuak egiten ditte analitikok eta gure funziñua izaten da hórrek probok gainbegiratzia". Nahasketarik ez izateko, Lamarianok diñuan moduan, "Urkusuko itturixaren uraren kalidadia oin dala 3 edo 5 urteko bera da: orduan be arriskua zekan eta oin gauza bera, kutsatzeko arrisku hori hor

egongo da. Beste aukera bat da hor bestelako itturri bat ipintzia".

Itturixen herrixa

Holan bataiatu zebeñ gure herrixa bere sasoiari. Udaleko ingurugiro batzordian oin dala hogeit urte egindako ikerketa baten arabera, 42 eguazeh herrixan bertan, mendi eta basarritakuak kenduta. "Zentsau egin ziran, euren ezaugarrixekin". Konparaziñuan, beste herrixetan baiño gehixago ei dagoz gurian, "iturri asko ur sare nagusixarekin lotuta". Urkusu, Errekatzu, Ardantzua, Abontza eta Aldatzeko itturixak iturburuetatik datoz. Amañako bixetatik (Artegietakua eta Ziriako Agirrekua) ezin da edan. Aittatutako informian 43 itturri eguazeh, baiña bariantia eta (batez be) autopistia egi-tterakuan, asko desager-tu dira, hori bai, bariantia egitten, Matsarixa aldian

beste bat agertu zan. Urkusuko parke haundiko biribilla be 1997xan kendu eben. Eta Sakunekuak eta Urtzaille kalekuak ez dabe urik emoten. Santañesekua, bestalde, zaharretakua ei da.

Lur azpiko ura erabiltzen daben itturirik ia ez dago gure herrixan. 1994ko legortia izan zanian, "zahori batek ur mordua detektatu eban Arrateko zelaixan, baiña oso sakon" eta ez zeban merezi. Akondia basarrixan be perforaziñua egin zan oin dala urtiak eta "baitta ur mordua lortu". Krabelin hotelaren osteko txabolari lur azpiko ura etartzeko bonbarekin 60 metroko perforaziñua egin eben eta Arrate guztirako ura emoten dau.

Gure herriko itturri ezagunenari artian, Urkusukua, Ardantzakua eta Ibarkurutzekua dagoz. Urkusukua Errastineko forjan egon zan eta 1979xan parkera pasau eben. Ardantzakua 1812kua da eta 1988xan konpondu eben; Urkon daka iturburua. Eta Ibarkurutzekua 1892kua da; azken horrek Txontan daka iturburua, Solac enpresia izan zanaren inguruan, eta hodi baten bitartez zeharkatzen dau Ego ibaia.



Urtian bittan aztertzen ditte herriko itturixetako uraren kalidadia.

Javi Lara eta Añibarro izango dituzu Euskaltelen dendan (Errebal, 5),

maiatzaren 6an 19etan autografoak sinatzen

ZAIN IZANGO GAITUZU!

EIBAR



Babesle teknologikoa:



21 urteko Iraia Odriozola eibartarra Dubain dago estetika pertsonalaren alorrean lanean. Bere kurrikulumarekin ez zaio zaila egin Dubain lana aurkitzea. Gurasoekin bidaiara asko egiteko aukera izan du beti, eta oso gaztetatik Ingalaterrara joan da ingelesa ikastera. Bilboko "Centro Hermanos Larrinaga"n ile-apaintzaile eta estetika ikasteaz gain, Martini markarentzat ekitaldiak egin zituen, eta Mercedes Benz-eko pasarelako gazte promesen galan ere parte hartu zuen. Ondoren, praktikak Ingalaterran Toni&Guy-rekin egiteko zortea izan zuen.

- Zertan ari zara lanean?

Estetika pertsonalaren alorreko enpresa garrantzitsuenetakoa nago lanean: HOUSE OF ENSPA. 500 behargin baino gehiago gara, eta ni naiz gazteena. Nik *Blow Dry Bar*-en egiten dut lan: orrazkerak, ile-bilduak, tratamenduak, estentsioak eta ile-mozketak egiten dira soilik. Horrek beste edozein hiritan ez zuen funtzionatuko. Hemen, Dubaien, etengabe daude ekitaldiak, hiri honek ez du lorik egiten, bezeroek estilo desberdinak behar izaten dituzte ekitaldi desberdinen arabera, eta astean bizpahiru aldiz etortzen dira. Aretoan egiten duan lanaz gain, *Stylist Arabia* edo *Emirates Woman Magazines* bezalako aldizkariarentzat *photo-shoot*ak egiten ditut; disenatzaile, pertsonaia famatu, modako bloggers-ekin lan egiten dut.

- Nolako izan da orain arteko esperientzia? Aldaketa handia izan da?

Zaila da zure familia eta lagunengandik 5.500 km-tara egotea, baina oso gustuko dut nire lana eta profesional gisa errealizatua sentitzen naiz.

Orain dela urte batzuk ezin nuen pentsatu, 21 urterekin Dubain egongo nintzela, eta are gutxiago *Cosmopolitan* aldizkariarentzat *photo-shoot* bat egingo nuela hiru arabiar disenatzailearekin. Hemen etorkizunean bizi zarela ematen du; 50 urteko jautzia zegoela iruditu zitzaidan etorri nintzenean. Leku desberdinetako jendea gaude eta beste kulturak ezagutzeko aukera daukat. Bizitza-estiloa guztiz desberdina da, batzutan burbuila baten barruan bizi naizela iruditzen zait, eta nire inguruan dagoen guztia ez dela erreal: munduko dorre handiena, 7 izardun lehenengo hotela, munduko mapa uharte artifizialetan simulatuta, luxozko autoak... Dena dela, egia da inguruan daukadan guztiak, gehienez, 15 urteko bizitza daukala.

- Nolako da zure bizimodua?

Denboraren %75 lanean ematen dut. Denbora librea lagunekin pasatzen dut afaltzen edo kopak hartzen. Nazionalitate anitzeko lagunak ditut, europarrak zein arabiarak eta baita euskaldunen bat ere.



Iraia Odriozola
(ILE-APAINATZAILE ETA ESTILISTA)

"Nire lanbidea ekitaldi berezietara bideratu dut"



Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta
ENPRESETAKO OPARIAK

publi.resa@euskalnet.net



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

AUTOEN *gehigarria*

33.
zkia.

euria, lainoa... eta teknologia berriak



EURIA EGITEN BADU...

- * Gurutzatze-argiak piztu. Aireztatze-sistema erabili, lurruna pilatu ez dadin. Haizetako garbigailua konektatu, atzeko luneta eta lainoaren aurkako argiak, beharrezko direnean.
- * Abiadura errepideko egoerara egokitu (zoladura, ikuspena...), segurtasun distantzia handiagoa eta mugimenduak astiro eta beharrezko denborarekin seinaleztatu, beste ibilgailuak ohartarazteko.
- * Euria egiten hasten duenean, zoladura askoz ere irristagarriagoa egiten da, errepideko zikintasun eta euriaren nahasteak eraginda, eta norabide edota abiadura aldaketa zakarrek irristaketak eragin ditzake.
- * Hezetasunaren ondorioz, frenoen pastilek eraginkortasuna galdu dezakete. Noizbehinka funtzionamendu egokian daudela konproba ezazu, pedala leuntasunez zapalduz.



Innovation
that excites



NISSAN PULSAR BERRIA
NISSANen KONPAKTUA

13.900 €* - TIK AURRERA



3 URTEKO
MANTENTZE-LANAK,
GARANTIA
ETA LAGUNTZA



GAURSA

Otaola Hiribidea 22 - 20600 Eibar - Tel. 943 82 09 74

www.gaursa.com

Kontsumo mistoa: 5,0 l/100 km. CO₂ emisioak: 117 g/km

*Salneurri gomendatua penintsulan eta Balear uharteetan. Borne hartzen ditu: PFF, garraioa, Nissan Asistancia, sustapen deskontua, Five Nissan plana, BEZa eta IEDMT (Espainiako merkatuan gerta daiteke zure autonomia erkidegoan aplikagarri ez izatea). 3 urteko mantentze-lan kontratua (kilometraje-mugarekin). Borne dauden azterketak estandarrak dira, Garantien eta Mantentze-lanen Ziurtagiriaren Liburuaren arabera. Kanpo geratzen dira flotak eta enpresak. Eskaintza baliagarria da eskuzko Nissan PULSAR Visia 1.2 DIG-T 115 ZP (85 kW) autoa erosten duten partikularrendako eta autonomoendako, euren izenean dagoen erabilitako auto bat entregatzen badute eta RCI Banque Saren Magic Plan-ekin finantzatzen badute, Espainiako sukurtsalean. 24 hilabeteko gutxienezko iraupen-konpromisoa, gutxienez 6.000 euro finantzatuta. Eskaintza ez da bateragarria beste kanpaina batzuekin eta baliagarria da hil bukaerara arte. Informazio zabalagoa, gertuen duzun kontzesionarioan. Iragarkian agertzen den modelo: Nissan Pulsar Tekna berria.



**AUTO KONPONKETAK
AURRERA**

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Urtzaile, z/g 20600 EIBAR
Telefono eta Faxe: 943 20 80 65 (Gipuzkoa)

GASOLEOEN BANAKETA



estación de servicio
kantoi
eibar

20.000 L.
2.000 L.

Otaola etorbidea, 13-Bis
Tfnoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77

**GAUEZ ZERBITZU
AUTOMATIKOA**

J.A. LASKURAIN
ASEGURU ARTEKARIA S.L. D.G.S. 1.408 - J



BIDAIA ASEGURUAK

R.A.C.V.N.-ren ordezkaritza Urtzaile 1 (alboko sarrera)
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13
943 12 05 30 / Faxe. 943 70 28 87

ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK



OTAOLA, 9 - 2. esk. Tel./Fax. 943 206 552

IRH MOTOS EIBAR

- * Gogoan izan, euriarekin ur baltsak sor daitezkeela. Ur kontzentrazio hauek "aquaplanning"-a eragin dezakete. Aquaplanning-a gertatzen da ibilgailu batek zolarekiko atxikidura galtzen duenean, asfaltoaren eta pneumatikoaren arteko ur-geruza fin baten eta abiaduraren eraginez. Hori zuzentzeko, oina gutxinaka azeleragailutik altxatu eta bolantea firme mantendu behar da.
- * "Spray efektua" euri asko egiten duenean, aurreko ibilgailuek euri fin eta zikina botatzen dutenean gertatzen da. Egoera hori galarazteko, segurtasun-distantzia handiagotu. Beste aukerarik ez baduzu haizetako garbigailua potentzia maximoan erabiltzea gomendagarria da. Eskuilen egoera behatu, ikuspen egokia edukitzeko. Barneko aireztapenaz, kristalen lurruntzea saihesten da.

LAINOA BADAGO...

- * Gurutzatze-argiak piztu eta lainoa itxia den kasuetan soilik piztu lainoaren aurkako argiak. Horien intentsitateak beste gidariak itsutu ditzake. Lainoaren aurkako argiak erabili nahi izanez gero, atzekoak piztu eta aurrekoak baldin badituzu, horiek ere. Argi luzeak saihestu behar dira, ispilu efektua sortzen baitute, gidaria itsutu eta ikuspena zailduz.
- * Aurreko ibilgailuarekin ahalik eta segurtasun tarterik handiena uztea garrantzitsua da, baina aurreko hori bistaz galdu gabe. Bat-bateko maniobrak eta aurreratzeak saihestu. Abiadura ematen den egoerara egokitu beharra dago, behar den denboraz erreakzionatu ahal izateko. Abiadura oso motela izanez gero, auto-ilarak edota elkarren segidako istripuak eragin ditzakegu.

TEKNOLOGIA BERRIAK

Airbag-ak eta ABS edo ESP bezalako segurtasun eta gidatzeko efikazia-sistemak gidarientzat ia ezinbestekoak bihurtu dira. Hemendik aurrera, autoetan beste teknologia batzuk ere nagusitzen joango dira. Auto gidari askok pentsatuko duzue teknologia horiek ez direla beharrezkoak, baina ziurrenik pixkanaka gidarien egunerokotasunean sartzen joango dira. Baina benetan beharrezkoak dira?

Masajedun jarlekua

Egia esateko, egun gogor baten ondoren masajea denori datorkigu primeran. Baina autoa al da masaje bat hartzeko lekurik aproposena? Atzekaldeko jarlekuari buruz hitz egiten ari bagara, zentzua izan dezake. Baina, gidariaren jarlekuaz ari bagara,




ZURICH
Lejardi S.L. Aseguru Agentzia
Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

komenigarria al da gidaria erlajatzzea? Ona da tentsiorik gabe gidatzea, baina kontuan hartu behar da, batez ere ibilaldi luzeetan, gidaria lo gelditzeko arriskua dagoela.

Automatismo elektrikoak

Azkeneko bost edo zazpi urteetan, lehen guttiz mekanikoak ziren piezentzako automatismo elektrikoak ugaritu dira: kristal-jasogailuak, jarlekuak... oso arruntak dira, baina, horiez gain, badaude oraindik ezezagunak izan daitezkeen beste batzuk, esate baterako, kotsola zentraletik irteten eta ezkututzen diren martxa aldatzeko palankak, edo motor elektriko txikiekin kontrolatzen diren aireztatze-sistemak. Ezin daiteke ukatu oso erosoak direla, baina pentsatu behar dugu sistema horiek kontrolatzen dituen mekanismoa apurtzen baldin bada, arazoa konpontzea oso garestia aterako zaigula.

Abiatzeko eta gelditzeko botoia

Benetan hainbeste kostatzen da giltza kontaktuan sartu, biratu eta autoa martxan jartzea?



Pneumatikoen zuloak konpontzeko KITA

Zuloak konpontzeko KITak leku gutxi okupatzen du eta pisua kentzen dio autoari, baina benetan baliogarria izaten da? Auto fabrikatzaileek ordezeko llanta eta pneumatikoaren prezioan aurrezteko balio du, besterik ez. Benetako ordezeko gurpilearekin eskuak zikindu egingo ditugu, baina minutu gutxitan gure ibilbidearekin jarraitu ahal izango dugu.



Soinu erregulagarria daukan eskape-sistema

Autoak maite dituztenei deportiboek izaten dituzten soinuak gustatzen zaizkie. Auto-fabrikatzaile batzuk "racing" soinua eta soinu lasaiagoa ateratzen duten bi ibiltarteko eskape-sistema eskaintzen dute. Irtenbide bitxia benetan, baina beharrezkoa al da?




Tailer  profesionalak

Talleres Caño
Ibilgailuen mantentze integrala
Oscar Caño Rubio
Urki 31 Behea (Armagin 8 ac) 943 530 870
639 517 044
Oscarc.rubio@gmail.com

Torrekua, 2 20600 EIBAR
Tel. eta Faxa 943 20 62 48
Tel. 943 20 70 31
eseibar@facilnet.es

ESTACION DE SERVICIO EIBAR, S.A. 
FURGONETEN ETA AUTOMOBILEN GARBIKETA
AUTOMATIKOIA ETA PRESIOAREKIN
LUBRIFIKATZAILEAK
GASOLEOEN ZUZENENKO BANAKETA

24 ordutan zabalik
www.estaciondeservicioeibar.com









CITROËN

ZAER MOTOR

Apalategi, 1
EIBAR
Tel.: 943 70 70 33

Padureta Industrialdea, 1
IURRETA
Tel.: 946 20 02 84

<p>19.300€</p>  <p>N-C5 Tourer HDI 140 Millenium 19.600 km. Matrik: 06/2014</p>	<p>12.800€</p>  <p>C4 Cactus Puretech 82 Feel Fine 9.500 km Matrik: 06/2014</p>	<p>16.800€</p>  <p>Nissan Qashqai 1.6dci Acenta 4x2 37.000 km Matrik: 10/2012</p>
<p>17.900€</p>  <p>DS3 Cabrio 1.6 THP 155 Sport 5.400 km Matrik: 03/2014</p>	<p>17.900€</p>  <p>N-C4 Picasso e-HDI 115 ETG6 Intensive 22.200 km Matrik: 11/2013</p>	<p>13.500€</p>  <p>N-C4 Puretech 130 Collection 20.300 km Matrik: 06/2014</p>

Gazteenen Gipuzkoako atletismo txapelketa jokatu zen Unben

Alebin eta infantil mailako txapelak ipini ziren jokoan domeka goizeko atletismo jaialdian eta gure herriko hainbat ordezkari podiumera igotzea lortu zuten. Batzuk, gainera, podiumaren gorenean izan ziren, jokaturako probak irabazi ondoren: Carlitou Mendy-k infantil mailako 220 metro hesietako B finala eta Gorka Karea-gak alebin mailako 150 metroko C finala bereganatu zuten.

Horrez gain, alebinetako 150 metroko proban, Itza Jauregi-barria E finalean eta Maddi Sarasua F finalean bigarrenak izan ziren, Eneko Abajo hirugarrena B finalean eta Jokin Amorrosta laugarrena D finalean. Infantiletan, bestalde, Carlitou Mendy jabalina jaurkitetan eta Markel Ariznabarreta 220 metro hesietan bigarrenak izan ziren; eta Mendy bera al-tuera jauzian, eta Eneko Osoro



Modalitate askotako probak jokatu ziren Unben domeka goizean.

(C finalean) eta Mikel Martinez (E finalean) 150 metrotan hirugarrenak izan ziren euren probetan. Mogel-Isasiko eta Itur-

buruko ikasleek, beraz, kirol horretan egiten diharduten progresioa erakutsi zuten goiz horretan.

Somos Eibar eta Tolosa bihar Ipuruan eskubaloiko liga amaitzeko

Zumaian Pulpori 24-30 irabazita (11-21 atsedendian), Eibar Eskubaloiko lehen taldea lidergoan heldu da ligako azken jardunaldira, Anaitasuna puntu bakarrera duela. Hala ere, liga amaitzeko falta zaion partidua ez da erraza izango, Tolosa hirugarren sailkatua izango baitu aurkari. Dena dela, eibartarrak eta Iruñeko Anaitasuna izango dira, liga amaituta, multzotik igoera fasean jokatu duten bi taldeak: eurekin izango dira eskubaloia esparruan ibilbide luze eta oparoa egin duten Pontevedra, Gijon, Granollers, Bartzelona, Madril, Elx, Ciudad Real eta Moguer, beste batzuen artean.



Harrobiko taldeak ere lider

Haritza Eibar Eskubaloiko bigarren taldeak 24-23 irabazi zion Donibaneri eta Gipuzkoako Kopako liderra da. Postu berean daude ere nesken jubenil taldea (Ereintzari 30-25 irabazi ondoren) eta Tekniker IK-4 jubenila (Urola 25-43 erraz menderatu eta gero).



Jubenil mailako King Kong taldea.

Debabarreneko talde gazteenak eskuratu zituzten azken aste-buruan: jubeniletan, Cafeteria King-Kong-ek 11-1 irabazi zion James J.T.ri, Postigok eta Rubenek hiruna gol sartuta; kadettean, Sukiak 1-6 irabazi zuen Inter B-ren kantuan eta, horrela, lider jarraitzen du liga amaitzeko jardunaldi bakarraren faltan; eta in-



Deporreko mendizaleak Albainara heldu ziren

Aurreko zapatuan "Ardo eta arrain bidearen" bigarren zatia bete zuen hogeit laguneko taldeak, Laguardia eta Albaina lotuta. Eguraldi ona izan zuten 22 kilometroak betetzeko eta, Paso del Toro bidetik joanda, Cruz del Castillora igotzeko aukera izan zuten. Maiatzaren 28an bidearen 3. zatia egingo dute, Albaina eta Estibaliz lotzeko egun horretan. Aurretik, dena dela, maiatzaren 9an, Lizarraga eta Riezuren arteko mendi-irteera egingo dute, tartean Antxurieta gaina (1.228 metro) zapalduz. "Katalogatuta dagoen Trinidad de Iturgoieneko baseliza ere ikusi ahal izango dugu han", diote antolatzaileek.

Garaipen errazak areto foballean

fantiletan, Sukiak 1-10 irabazi zion Uzturpe Laibururi eta, bi jardunaldiren faltan, liderra da Arizmendi Aitzorroztz-ekin batera.

Concepto Egile talde nagusia izan zen, oraingoan, garaipenik gabe geratu zena Bigarren B mailako 2. multzoko neurketan hiruna berdindu zuelako Zierbenaren kantuan.

"Ipurua6267" kanpaina bultzatzen

Astlehenean kanpaina berri bat aurkeztu zuten Ipuruan, liga amaitu aurretik Ipuruan jokatu beharreko hiru partiduen aurrean. Alex Aranzabal Eibar FT-ko presidentearekin izan ziren Gema Baqué marketing zuzendaria, Javi Lara jokalaria, Eskozia La Brava eta Gatzato peñetako ordezkariak eta administrazio kontseiluko eta klubeko beste beharginetako batzuk. Sevilla, Espanyol eta Kordobaren



Klubeko ordezkariak eta zaletuak bat eginez ekitaldian.

Sevilla, Espanyol eta Kordobaren aurkako partiduetan Ipurua gaur egun dituen 6.267 eserlekuak betetzea du helburu kanpainak, "klubak bere historiako une bereziena bizi baitu". Horretarako, gainera, Iparraldeko Tribunaren lanak geraraztea erabaki dute zaleen babes handiena jasotzeko.

Bestalde, Sevillaren aurkako partiduen ondoren, Valentzian jokatu du Eibarrek hurrengo neurketa, domekan 19.00-etan. Aurkari gogorak ditu Garitanoren taldeak puntuak batzeko, baina aurrerapausu nabarmena emango luke horrela izanda.

motzean

KARATEA

Hernanin jokaturako alebin mailako lehiaketan, Kalamuako hiru ordezkariak I. postua lortu zuten eta beste bik bigarrena, horrela finalerako sailkatuz. Hondarribian, bestalde, 200 karatekek hartu zuten parte federatuen mailako Gipuzkoako txapelketan. Infantiletan, Xuban Hoyosek urrezkoa irabazi zuen kumite modalitatean eta 3.a izan zen katetan; alebinetan, bestalde, Miren Elorzak bigarren postua eskuratu zuen kata modalitatean. Asteburu honetan Kalamuako ordezkariak Calatayudera joango dira, jiu jitsu IV. Espainiako Koparako.

Kiroljokoa foball-zaletuen Liga amaituta, Kopa hasteko zain

26 jardunaldiak jokatu, domekan amaitu zen Kiroljokoa liga Durango txapelkun zela. Garaileek 66 puntu eskuratu dituzte, Koskorrek baino bost gehiago eta Txoko 14 puntura lagata. Aldaketa azken postuetan eman zen eta Ipur Sagardotegiak, azken jardunaldietako itxuraldaketa baieztauz, Caserio Slow XOK 6-1 egurtu zuen eta baita aurea hartu sailkapenean. Koskorreko Carolo izan da goleatzaile nagusia, 21 golekina, Bar Txokoko Conde (15) eta Durango liderraren Iñaki (14) eta Xabier (13) goleatzaileen aurretik. Koskor bigarren sailkatuak sartu ditu gol gehien (70) eta Durango liderrak jaso ditu gutxien (19). Asteburu honetan, zubia dela-eta, ez da partidurik izango eta hurrengoan Kopa torneo hasiko da.

Gimnastak podiumean



Gimnasia erritmikako federatu eta oinarri mailetakoa Gipuzkoako txapelketan, Ipurua Elene Varela eta Nahia Arguiz bigarrena eta hirugarrena izan ziren, hurrenez hurren, kadete mailako lehiaketan. Bestalde, eskolar A eta amateur mailetakoa 14 neskatila sailkatu dira Gipuzkoako txapelketarako: euretako hiru onenak dira infantil A mailan.



**San Andres
Gozotegia**

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Isasi, 31
943 207 737

*Etorri!
Zure etxian
egongo zara!!*

**Ogi ARTISAUA eta
BASERRIKO ogia**
*Eibarko prezio
merkeenetan!!*

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTINDO

ASTELENA GASTROTEKA

Estaziño, 7
943 20 70 32

**2 lagunendako
menu-degustazioa**
36 €-tik aurrera

- 30-90 egunez ondutako okelak (zapore gehiago, samurragoa, osasunerako hobea)
- Behi frisiarra (Galiziakoa, Andaluziakoa eta Alemaniako inportaziokoa)






MARIANO LUKE

(Klub Deportiboko Kultura Batzordea):

“Herriarrak protagonista bihurtu nahi ditugu Euskal Jaiaren 50. edizioan”

Urrezko ezteiak ospatuko ditu aurten Eibarko Euskal Jaiak. 1965ean Arrate Kultur Elkartearen eskutik bere ibilbidea hasi zuenetik mende erdia bete du gaur egun Deporrek antolatzen duen maiatzaren azken asteburuko ekitaldiak. Prestatutako egitaraua berezia izango da: hiru egunetan kontzentratutakoa, baina asteburua guztiz beteko duena.

- Zertan izango da berezia aurtengo edizioa?

Maiatzaren 29, 30 eta 31 hartuko dituen egitaraua parte-hartzailea izango da, betikoari jarraituta; baina aurten bereziki bultzatu nahi dugu espiritua hori. Horrez gain, historiari ere behar duen tokia egin nahi diogu, kaleratuko ditugun dokumentala eta liburuarekin. Argi laga nahi dugu, bestalde, euskal kultura bizirik diharduela: gure ekarpena izan da 50 urte hauetan horren biziraupenean laguntzea.

- Dagoeneko kalean jarri dituzue salgai rifak, pinak, erropa...

Rifak hainbat denda eta tabernetan daude salgai (sariak ikusgai izango dira lehenengo Topalekun eta gero Ikatzen-en) eta erropak sal-tzen kalean izango gara maiatzaren 9an, 14an eta 23an.

- Aurtengo edizioaren aurkezpena Coliseoan izango da, ezta?

Deporren egin beharrean, aurten egitaraua Coliseoan aurkeztuko dugu maiatzaren 27an, 19.00etan. Hor aurkeztuko ditugu dokumentala eta liburua ere eta jendearen eskura ipini. Liburua grafikoa izango da batez ere, urteotako bilakaera erakutsiko duena.

- Kantu-afarirako eta herri-bazkarirako txartelak noizko salgai?

Maiatzaren 8an ipiniko ditugu, 10 eta 12 eurotan. Menua bertoko produktuekin prestatuko dituzte herriko hainbat elkarteetan eta domekako bazkarirako (aspaldiko dantzariak-eta etorriko direnez) aforoa 550era igo dugu, hor muga jarri. Lehenbailehen izena ematea komeni da, toki barik ez geratzeko.

- Musika jaialdi benetan indartsua prestatu duzuen barixakurako.

20.00etan musika lasaiarekin hasiko gara (Makala), gero belau-naldi guztien gustokoa izan daitekeen Espaloian izango dugu, intentsitate gorena Hesian taldearekin bizi ahal izango dugu eta, amaitzeko, “ganberroentzat” EmePeBo5t eibartarrak.

- Dantza arloan ere bada gauza berririk...

Aurten, baten ordeaz, bi dantza saio izango dira... eta hiru erro-meria. Urteko Ezpalak zapatu arratsaldera pasatuko da eta domekan Eibarko dantzariak hartuko dute protagonismo osoa: hor dabilta entsaiatzen 185 bat inguru.

- Herri-kiroletarako ere jendeak izena eman ahal izango du. Aukerak zabaldu dituzue, benetan, jendearen parte-hartzerako

Hori nahi dugu. Kultura Batzordetik, gainera, berezko antolakun-tza duten beste batzuen ekarpenak lotzen ditugu, hori da gure ze-regina. Ehundik gora lagun daude horrelako egitarauaren atzean.



Egundoko antzezlan

Datorren asteko barixakuan (maiatzaren 8an) 20.30etan "Tremendas" antzezlan taularatuko du Maria Casal konpainiak Coliseo antzokian. Luis Gimenez zuzenduta, hiru emakume, M^a Jose del Valle, Lucia Alvarez eta Maria Casalek hartuko dute parte lau obra laburrek eta antzeleentzat idatzitako sei bakarriketak osatzen duten lan honetan. Sarrerek 8 euro balio du.

Tertulia Jon Sarasuarekin

Datorren eguaztenean, 19.00-etatik aurrera, Jon Sarasua egongo da Portalean, areto nagusian, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta liburutegiak antolatutako idazlearekin Harixa Emoten literatur solasaldian. Sarasuak "Hiztunpolisak. Euskaltasunaren norabideaz apunteak" (Pamiela, 2013) liburuari buruz egingo du berba. Egileak berak dioenez, "euskaren norabideaz pentsatzeko angelu batzuk hartuta, orri hauek zatika egindako begiratuak dira, adar anitzetan barreiatuak". Jende guztiari zabalik egingo den ekitaldian idazleak, besteak beste, hizkuntza kontuetan nola eta nora goazen azaltzen ahalegingduko da.



Bertso saioa domekan Belek

Domekan, 18.30etatik aurrera bertso saioa egingo dute Beleko tabernan. Eñaut Martikorena, Eli Pagola eta Jokin Bergara eibartarrak jardungo dute bertso-tan eta, betiko lez, nahi duenak saioaz musutruk gozatzeko aukera izango du.

Sei lan Eskolarteko Antzerki Erakusketan

Astehenean aurkeztu zituzten Debabarrenoko Eskolarteko XXXI. Antzerki Erakusketa osatuko duten antzezlanak: maiatzaren 9tik 27ra bitartean bereziki umeentzat sortutako sei lan ikusteko aukera izango da Hezkuntza Esparruko antzokian eta Coliseoan. Udalak, Hezkuntza Esparruko Egoitza Zentroak eta Narruzko Zezenek antolatutako egitaraua Antzerki Jardunaldien luzapena izatea nahi dutela adierazi dute prentsaurrekoan eta, Juan Ortegak behin eta berriz azpimarratu duenez, "pena litzateke jendeak horrelako aukera bikaina ez aprobetxatzea". Egitarauan lehen maiatzaren 9an, 17.00etan Coliseoan Ytuquepintas-ek eskainiko duen "Sueños de arena" izango da (5 euro). Gainerako antzezlan guztiak, berriz, doan izango dira, 15.00etan Hezkuntza Esparruan: maiatzaren 12an "Codigo postal 00" (Engruna Teatre, euskeraz); maiatzaren 18an "Kontu kontari" (La Enana Naranja, euskeraz); maiatzaren 20an "El sobrino de Méliès" (Cachivache); maiatzaren 26an "Entre picaros anda el juego" (La Quimera de Plastico); eta maiatzaren 27an Eibarko Kixkak agurtuko du egitaraua, euskerazko "Bolaluma" ikuskizunarekin.



Laskurainen liburua

Jose Miguel Laskurainek egilekide moduan idatzitako hirugarren liburua, "El milagro de dirigir la orquesta sin usar las manos" Amazon plataforman salduena izatera ailegatu da hirugarrenez. Aurretik kaleratutako bi liburuekin batera, orkestra zuzendaritza eskolatan erreferente bilakatu da lana. Liburuaren salmentarekin batzen duten dirua Unicef elkarteari laguntzeko erabiliko dute.

laburrak

TARTEKA MARTEKA

Tarteka sormen espazioak ekainaren 23tik uztailearen 30era bitarteko egitaraua antolatu du 2-12 urtekoentzat (izen-ematea ekainaren 5era arte). Azalpenak emateko bilera maiatzaren 6an, 19.00etan egingo dute, Tartekan (Elgeta-kale, 1). Horrez gain, helduendako pintura ikastaroa (maiatza/ekainean, astelehen, eguazten eta barixakuetan, 10.00etatik 11.30etara edo 18.30etatik 20.00etara) eta helduendako antzerki tailerra (maiatzaren 8, 15, 22 eta 29an, 17.00etatik 18.30etara) antolatu dituzte. Izen-ematea 943249161 telefonoan edo info@tarteka.org helbidean.



egitaraua

08,45 - 09,00:	Akreditazioa eta dokumentazioa.
09,00 - 09,15:	ONGI-ETORRIA.
09,20 - 10,15:	"Etxeko eta kaleko hizkuntza erabileraren arteko loturak: Lasarte-Oriako ikerketa bat". Pello Jauregi , Hezkuntza Zientzietan Doktorea. EHU.
10,20 - 10,45:	"Familia bidezko transmisioa: guraso euskaldunen diskurtsoak". Malores Etxeberria , Hernaniko Udaleko euskara teknikaria. Nekane Jauregi , Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara teknikaria.
10,50 - 11,15:	"Gurasoak Berbetan: guraso eta familiei zuzendutako mintzapraktika taldeak". Maidar Aranberri , ...eta kittol! Euskara Elkartearen teknikaria.
11,20 - 11,45:	"Ilgandeak jai. Familia giroan euskaraz". Naroa Cuesta , Geu Elkartearen teknikaria.
11,50 - 12,10:	ATSEDENA.
12,15 - 12,35:	"Erreferenteen garrantzia. Prestigioaren transmisioa". Gaizka Garitano , Eibar Kirol Elkartearen entrenatzaileari elkarriketa.
12,40 - 13,25:	"Ahozko tasunaren transmisioetik hizkuntzaren erabilerara". Miren Artetxe , Euskal Filologian lizentziatua. EHU,
13,30 - 14,45:	"Mahaingurua". Dinamizatzailea: Jaime Altuna . Urtxintxa Eskola.
14,45 - 14,50:	AGURRA.
15,00:	BAZKARIA.

euskararen transmisioa

mintegia

IZEN EMATEA

Maiatzak 4, astelehena, zabalik

943 20 09 18
normalizazioa@etakitto.eus



Antolatzailea:



Babeslea:



Laguntzaileak:



Argazkiek maiatza beteko dute

Aurreko astean aurkeztu zuten Klub Deportiboan Argazkilaritza Taldekoek prestatu duten Argazkilaritza Maiatzean-eko egitaraua: urtero lez, herriko erakusketa areto guztietan orotariko argazki bildumak ipiniko dituzte ikusgai: maiatzaren 8tik 31ra Luis Alberto Franke, Andres Indurain eta Mikel Mitxelena-ren lanak Portaleko erakusketa aretoan ikusgai egongo dira; maiatzaren 1etik 31ra, berriz, Argizaiola Trofeoa (Deporren), Gipuzkoa Nazioarteko Saria (Untzagako jubilatuetan) eta Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen erakusketa kolektiboa (Ambigu eta Portalea tabernetan) egongo dira zabalik; eta Topalekuan Enrique Lorenzo Deporrek Argazkilaritza Taldeko kideak bere argazkiak erakutsiko ditu, maiatzaren 8tik 31ra arte. Aurkezpenean esan dutenez, "egitarauaren

barruan gure taldeko norbaiti erakusketa ipintzeko aukera ematea pentsatu genuen eta aurten Enriqueri egokitu zaio. Datozen urteotan ere taldeko beste argazkilari batzuk txandakatzen joango dira".

Erakusketetatik aparte, maiatzaren 16an kalera irtengo dira, baina aurten arratsaldean ipiniko dute kaleko estudioa Untzagan, 16.00etatik 21.00etara, "goizak oso labur geratzen" zitzaizkien eta. Egun horretan beste berrietasunik ere izango da: mahaia ipiniko dute argazki taldeko kideen argazkiak salgai ipintzeko. Eta aurten La Novena antzerki taldekoek kaleko estudioari eman nahi dioten mende hasierako kutsua lortzen lagunduko diete, antzeppen moduko batekin. Argazki rallya maiatzaren 31n egingo da, "Euskal Jaierekin batera" eta, hauteskondeak direla eta, Santos Morenoren eskutik egingo den argazki-tailerra ekainaren 6ra arte atzeratu behar izan dute (oraindik badago izena emateko aukera, argazkilaritza@deporeibar.com helbidera idatzita. Prezioa 20 eurokoa da).



Aurreko eguenean aurkeztu zuten hilabete osorako egitaraua. SILBIA HERNANDEZ

Dantza ulertzeko modu berria

Bihar 20.30etatik aurrera "Sylphides Pi" dantza ikuskizuna eskainiko du Coliseoan Iker Gomez-en dantza konpainiak. Bere koreografiari jarraituko dioten dantzariak Eva Martinez, Michael Realin, Paula Martinez, Marcos Martincano, Alejandra Deza, Stephanie Van Laethem, Ainara Aragones, Sergio Blaya, Vanessa Ruiz, Isabel Torreiro, Barbara Garcia eta Felipe Garcia dira. Bihar eskainiko duten ikuskizuna "dantza lehen zena eta orain dena gau egungo kodearen arabera berrinterpretatu eta zalantzan jartzen duen trilogia eszeniko bat da". Fokine koreografo errusiarraren jatorrizko Sylphideak historiako lehen ballet abstraktutzat eta dantza garaikidearen hasiera puntutzat hartu izan dute, argumentu eta tramarik ez duen lehen balleta bezala ezagutzen da, baina Fokineren lanaren esentzia estetikitik abiatuta, "Sylphides Pi" ikuskizunean "errepresentazio biziagoa eraikitzea da helburua; guk bizitza espermentatu eta hautemateko dugun moduari gehiago hurbiltzen zaion bertsio honetan, ikusleari era arinean eta umore dosi txikiarekin gaur egungo dantza nola bizi eta sentitu daitekeen erakutsiko diogu". Sarrerak 7 euro balio du.



"Animal Culture" erakusketa Museoan

Maiatzaren 6tik 15era bitartean, Armagintzaren Museoaren harreralekuan "Animal Culture", Jesika Martínez-Alcocer artistaren proiektua ikusteko aukera izango da museoaren ordutegiaren barruan, hau da, eguaztenetik zapatara 16.00etatik 20.00etara eta domeketan 10.00etatik 13.00era (sarrera dohainik). Portaleko azken pisuan ikusgai ipiniko duten proiektua ilustrazioan eta oihal estanzazioan oinarritutakoa da. Artista gazteak artisauekoizpenaren bitartez edizio mugatuak sortu ditu, serigrafia teknikaren bidez produktu eksklusiboak eskaintzeko: kamisetak, sudaderak eta oihalezko poltsak, guztiak eskuz estanzatutak. Egileak dioenez, "animalia-gizakiendako sortutako marka da. Hau da, natura eta kulturaren artean oreka egon daitekeela uste dugun guztiondako sortutakoa". Proiektuaren aurkezpena, bestalde, erakusketaren inaugurazioarekin batera egingo da, datorren eguaztenean 19.00etan.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IBAI, domekan lau urte bete zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Maialenen partez.



Zorionak, PERU Gorosabel Txurruka, maiatzaren 2xan urtetxua beteko dozu-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, IMANOL, gaur 10 urte betetzen dozu-eta. Muxu eta besarkada pillua etxekuen partez.



Zorionak, ESTI!, gaur zure eguna dalako. Muxu haundi bat laguneren partez.



Zorionak, MANEX, maiatzaren 5ian zazpi urte egingo dozu-eta!!! Muxu haundi bat etxeko danon partez!



Zorionak, JULEN!! 4 patxo haundi danon partez!! Ondo pasa, txapeldun!!



Zorionak, ASIER, maiatzaren 6xan bost urte egingo dozu-eta. Patxo haundi bat UNAX-en, amaren eta aittaren partez.



Zorionak, MIREN, domekan zortzi urte egingo dozu-eta. Famelixa guztiaren partez.

hildakoak

- M^a Carmen Elvira Gonzalez. 68 urte. 2015-IV-1.
- Consuelo Osa San Martin. 92 urte. 2015-IV-23.
- Feli Apellaniz Aizpitarte. 87 urte. 2015-IV-23.
- Casimiro Quesada Montero. 2015-IV-23.
- Jacinto Dominguez Martinez. 83 urte. 2015-IV-24.
- Luis Urkidi Etxaniz. 93 urte. 2015-IV-24.
- Luis Del Campo Gimón. 81 urte. 2015-IV-25.
- Avelino Gutierrez Garcia. 73 urte. 2015-IV-25.

jaiotakoak

- Nagore Agüero De la Cruz. 2015-IV-17.
- Eva Feijoo Luque. 2015-IV-20.
- Hodei Larruskain Murga. 2015-IV-23.
- Jon Olaeta Bolinaga. 2015-IV-23.
- Maysa El Haddan. 2015-IV-24.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
2an: 17.00, 19.45, 22.30
3an: 17.00, 20.00
4an: 20.30

"El nuevo exótico hotel..."
 Zuzendaria: John Madden



(2 ARETOAN)
1ean: 17.00, 20.00 (1 aretoan)
2an: 17.00, 19.45, 22.30
3an: 17.00, 20.00
4an: 20.30

"Tiempo sin aire"
 Zuzendaria: Andres Luque



(ANTZOKIAN)
1ean: 17.00, 20.00 (2 aretoan)
2an: 17.00, 19.45, 22.30
3an: 17.00, 20.00
4an: 20.30

"Los Vengadores"
 Zuzendaria: Joss Whedon



EGUENA 30

DOKUMENTALA

19.00. "Euskara, ospeletik eguterara" emanaldia eta Dabid Anaut-en "Euskararen kate hautsiak" liburuaren egilearen mintzaldia. ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuarean).

KALERATZEAK STOP

19.00. Plataformako bilera irekia. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

BARIXAKUA 1

MAIATZAREN LEHENA

12.00. LAB sindikatuak deituta, eskualde mailako manifestazioa, Untzagatik abiatuta.

13.00. Ekitaldi politikoa.

15.00. Herri bazkaria. Untzagan.

BILERA

18.30. Sanjuanak prestatzeko bilera irekia, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

GURE ESKU DAGO

19.00/20.00. "Erabakia ehuntzen" ekimenerako oihalak etab. saltzea. Deporren.

DANTZA

20.30. "Sylphides Pi" ikuskizuna, Iker Gomezen dantza konpainiaren eskutik. 7 euro. Coliseoan.

ZAPATUA 2

SANTA KURUTZEKO JAIK

10.30. Kanpaiak.

11.00. Meza, Santa Kurutzeko ermitan, Gorosta eta Mandiola auzoetan hildakoen alde. Ondoren hamaiketako.

12.00. Oier Balzola eta Unai Andonegi trikitilariak.

12.30. Haurrentzako jolasak.

13.00. Herri jolasak, auzoko gazteen eskutik. Santa Kurutzen.

14.30. Bazkaria. Ondoren, erromeria Oier Balzola eta Unai Andonegiren eskutik. Ixua jatetxean.

ATE IREKIAK

10.00/14.00. Gerra Zibilaren interpretazio zentrua ezagutzeko ate irekien jardunaldia. Arrateko kolonian.

DOMEKA 3

SANTA KURUTZEKO JAIK

10.30. Kanpaiak.

11.00. Meza nagusia Santa Kurutzeko ermitan eta, ondoren, piskolabisa, Mugi Panderoa erromeria taldeak girotua.

12.00. Soka dantza, Kezka dantza taldearen eta Usartza txistulari bandaren eskutik.

12.30. Haurrentzako jolasak.

13.00. Txapel jaurtiketa nahi duten guztientzat.

14.30. Kanpai hotsez amaituko dira aurtengo jaiak. Santa Kurutzen.

BERTSO SAIOA

18.30. Eñaut Martikorena, Eli Pagola eta Jokin Bergararekin. Beleko tabernan.

MARTITZENA 5

JOSKINTZA-PUNTO TAILERRA

17.00 eta 18.30. Portalean.

TAILERRA

19.00. Partaidetzako aurrekontuak Debabarrena hobetzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik. Portalean.

EGUAZTENA 6

HARIXA EMOTEN

19.00. Idazlearekin Harixa Emoten: "Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak" liburuari buruzko solasaldia, Jon Sarasua egilearen eskutik. Portaleko areto nagusian.

AURKEZPENA

19.00. "Animal Culture", Jesika Martínez-Alcocer artistaren proiektua. Armagintzaren Museoaren harreralekuan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

DANBORRADA

19.00. Umeen danborradarako entsegua. Beistegi eraikinean (Bittor Sarasketa kalean).

EGUENA 7

ENPLEGU-TAILERRA

10.00/12.00. "Hautaketa prozesu baten dinamika". Portalean (ikastaro gelan).

KALERATZEAK STOP

19.00. Plataformako bilera irekia. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

lehiaketak

- ✓ **Li (buru-hausgarriak)**
Apirilaren 8tik aurrera. Juan San Martin liburutegian.
- ✓ **Sanjuanak Eibarren 2015 Kartel Lehiaketa**
Maiatzaren 8ra arte. Informazioa eta lanak aurkeztea: Pegoran.
- ✓ **Alkohol larregi ez edateko umorezko pegatina**
Maiatzaren 8ra arte. Informazioa eta lanak aurkeztea: Pegoran.

HOROSKOPOA

ARIES

Udaberriak ondo egin dizula nabaritzen zaizu! Pozik, gogotsu eta indarrez beteta zaude. Sasoi aprobeztatu beharko!

TAURUS

Inguruan duzun baten bat gezurretan dabil. Ondo asmatutako gezurrak dira eta antzematea kostatuko zaizu. Kontuz!

GEMINI

Urduri zaude azken aldian eta kostatzen zaizu kontzentratzea. Saiatu lasaitzen, bestela ez zaizkizu gauzak ondo irtengo.

CANCER

Barreanean luzaroan zenuen hori bota eta erabat lasai geratu zara. Egokia da ueña, merezi izan duzun modukoa.

LEO

Zorrak kitatzea tokatzen da. Iraganeko kontuak atzean lagata, hutsetik hasteko ueña da, bide berria zabaltzeko ordua.

VIRGO

Badakizu bera zure aldamenaren egongo dela edozertarako. Baina badakizu ez dagoela txarto ere eskerrak ematea.

LIBRA

Egoera arraroa biziko duzu domekan, nahiko deserosoa,. Baina lasai, azkarra zara eta erantzun egokia topatuko duzu.

SCORPIUS

Zure traza handia duen norbait ikusi eta ispilu baten aurrean zaudela pentsatuko duzu. Lasai: ez da klon bat! Halakorik!

SAGITTARIUS

Euskal Jairako prestatzen? Aurten ere ederki pasatuko duzu dantzan egiten. Hori bai, ajea demasekoa izango da.

CAPRICORNIUS

Zure lekuan egotea gustatuko litzaioke jende askori; ohartuko zara horretaz. Duzuna baloratzen lagunduko dizu.

AQUARIUS

Gauza txar guztiak zuri gertatzen zaizkizula uste duzu, baina errealitatea da edozengatik kezkatzen zarela.

PISCIS

Ezin ukatuko duzun eskaintza jasoko duzu. Bueltak emango dizkiozu buruari, baina onartuko duzu. Zortea zurekin!

Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

erakusketak

- ✓ **Maiatzaren 2ra arte**
SELENA LIZARBURU GALLASTEGIREN
olio, ikatz-marrazki eta tenpera erakusketa.
Untzagako Jubilatut Etxean.
- ✓ **Maiatzaren 3ra arte**
“SAN ANDRES ESKOLA 1965-2015”
antzinako argazki eta bideoen erakusketa.
Topalekuan.
IGNACIO ZULOAGA INSTITUTUKOEN
“Egungo Islak” erakusketa. *Portalean.*
EIBARKO ARTISTEN ELKARTEAREN
erakusketa. *Portalean.*
- ✓ **Maiatzaren 1etik 31ra arte**
34. ARGIZAIOLA lehiaketa. *K. Deportiboan.*
KLUB DEPORTIBOKO Argazkilaritza
Taldekoen lanak. *Ambigú eta Portalea
tabernan.*
GIPUZKOAKO NAZIOARTEKO SARIA.
Untzagako Jubilatut Etxean.
- ✓ **Maiatzaren 6tik 15era arte**
“ANIMAL CULTURE” Jesika Martinez-
Alcocer artistaren proiektua.
Armagintzaren Museoaren harreralekuan.

farmaziak

- ✓ **eguna 30**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **barixakua 1**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **zapatua 2**
EGUNEZ **Castañó** (J. Etxeberria, 7)
- ✓ **domeka 3**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **astelehena 4**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **martitzena 5**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **eguztena 6**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostotarren, 10)
- ✓ **eguna 7**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **barixakua 8**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)

GAUEZ BETI -2015EAN-
Elorza (J. Gisasola, 18)

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 21.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 22.50etara ordu. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 22.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu eta 19.30etatik 22.50etara ordu.

EIBAR-BILBO. Lanegunak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.50etara ordu eta 07.15, 08.00, 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Lanegun eta zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.40 eta 20.40. Jaiegunak: 12.00 eta 20.00. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.55etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatuak eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 08.55, 11.35, 14.35, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 06.45, 09.45, 12.45, 15.45, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.35 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

ikastaroak

- ✓ **Antzerki Tailerra**
Maiatzaren 8, 15, 22 eta 29an (17.30-18.30). Tarteka sormen espazioan (Elgetakale, 1)
- ✓ **Jabetze Eskola**
Apirila eta ekainera bitartean. Amodioa eta sexualitatea bizitzaren bigarren erdian (maiatzaren 8an); Autodefentsa Feminista II (maiatzaren 22an); eta Autodefentsa Feminista gazteentzat (maiatzaren 29an). Izen-ematea: Pegoran.
- ✓ **Argazki-tailerra: “Workshop: retoque y edición digital”**
Ekainaren 6an. Informazioa: argazkilaritza@deporeibar.com

3				6	5	2
	9				1	8
		1	3	8		4
			4	3	7	
			1	5	9	
	1		6	4	2	
7		2				8
8		5	2			4

SUDOKUA

5	1	6	8	9	3	2	7	4
9	3	2	6	7	4	5	1	8
8	4	7	2	1	5	3	9	6
3	9	4	1	5	6	8	2	7
2	6	5	7	3	8	1	4	9
7	8	1	4	2	9	6	5	3
4	7	3	5	8	2	9	6	1
6	5	9	3	4	1	7	8	2
1	2	8	9	6	7	4	3	5

AURREKOEN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisu berriztua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan udarako edo ikasturterako. San Ignacio konplexuko edifizio berdean. Tel. 645-716847.
- 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-532589.

2. Motorra

2.1. Salgai

- 200 edo 400 cc-ko motorra errosiko nuke. Gaez deitu. Tel. 654-601946.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garajea salgai Txomon. 14 m². Komuna eta autoa garbitzeko lekuarekin. Tel. 686-611957.
- Taberna traspasatzen da Eibarren. Alokairua: 900 euro. Traspasoa: 6.000 euro. Tel. 630-644175. Maria.
- Garaje itxia salgai Untzaga plazan. Tel. 688-678934.

3.2. Errentan

- Gazteentzako lokala alokagai Jardinetan. 132 m². Berriztuta. Etxerik ez ondoan. Tel. 656-756485.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da kamarera jarduteko, sukalde-laguntzaile moduan eta garbiketak egiteko. Tel. 627-162936.
- Emakumea eskaintzen da interna lan egiteko. Tel. 625-785101.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 636-841158.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-860933.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 657-481028.
- Emakumea eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko eta orduka garbiketa lanak egiteko. Tel. 631-343232.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko arratsaldeko 18.15etatik aurrera. Baita asteburuetan ere. 689-391261.
- Esperientziadun ekonomilaria eskaintzen da errenta aitopenak egiteko. Prezio onean. Tel. 688-856459.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 638-338816.
- Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 653-010861.
- Mutila eskaintzen da baserrian lan egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 622-321095.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko. Esperientziarekin. Tel. 622-321095.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erresidentzietan eta etxetan lan egindakoa. Tel. 622-037598.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gaez, orduka edo ospitalean. Tel. 652-587259.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gaez, orduka edo ospitalean. Tel. 632-966192.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziarekin. Tel. 650-513412.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak eta premia berezia dituzten pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 688-639371.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ileapaintzaile jarduteko. Tel. 632-692463 eta 688-394038.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 662-252150.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 672-867999.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta den-dari jarduteko. Tel. 632-426847.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 602-123667.

4.2. Langile bila

- Tabernaria behar da esperientziarekin barran eta sukaldean. Tel. 637-440511.
- Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 688-679682.
- Sukaldean eta barran eskarmentua duen pertsona behar da Eibarko taberna batean. Tel. 650-409249. Txomin.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Klase partikularrik ematen ditut LH eta DBH mailatan. Euskeraz. Tel. 610-980628. Irati.



**Ignacio
Zuloaga
Institutua**



EIBAR

Aurrematrikula Maiatzaren 4tik 14ra

Batxilergoak: Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia



Elkartrukeak



Alemania - Ingalaterra



Jardifeta 3 Eibar · Tel.:943208349 · Fax:943206048 · www.ignaciozuloaga.net · E-mail:012055aa@hezkuntza.net

UDALEKUAK 2015

**Ekainaren 29tik
uztailaren 30era**

NORENTZAT

HH2 - LH2ko haurrentzat

ESKAINTZAK

3 astekoa (ekainak 29 / uztailak 17)
5 astekoa (ekainak 29 / uztailak 30)

ORDUTEGIA

09.00etatik 13.00era

Zaintza zerbitzua (galdetu)

- **Bigarren seme-alabak** %10eko deskontua
- **Nagusienekin** astean behin txangoa (hondartzara, mendira...)
- **Txikiekin** astean behin piszinara

IZEN EMATEA: Ekainaren 5era arte



mitxeleta

Tfnoak: 943 120 439 / 628 598 359 / 608 465 865
aisiamitxeleta@gmail.com

haurren aisialdia eta askoz gehiago

ekintzak

HONDARTZARA IRTEERA

IGERILEKURA IRTEERA

JOLAS KOOPERATIBOAK

UR JOLASAK

KANTA JOLASAK

zatoz primeran pasatzera!!!

HITZALDI INFORMATIBOA

Maiatzaren 7an

Portaleko hitzaldi gelan, 19.00etan

herritarrekin

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN

PARTAIDETZAKO AURREKONTUAK

2 MILIOI euro
DEBABARRENA
hobetzeko

Egin zure proposamena

www.aurrekontuahobetzen.eus

webgunean

eta parte hartu
zure herriko
tailerlean

Zure esku dago!

EIBARREN

Maiatzaren 5ean

asteartean

Portalean, 19:00etan



Zuk erabakitzen duzu!



Gipuzkoa
BERRIA